

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZALDUONDOKO UDALA****Zerbitzu publikoak eman eta jarduera administratiboak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea**

Zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen zerga-ordenantza aldatzeko Udaltzarak 2025eko urriaren 9an hartutako hasierako erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren (2025eko urriaren 20ko 119 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen), eta erabaki horren barruan aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (dekretu horren bidez onartu zen Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina), Zalduondoko Udalak, udaltzarak 2025eko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketa.

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga-ordenantza indarrean jartzeko, aldatutako tarifen eranskina argitaratzen da.

**I. eranskina, 1. epigrafea "Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa", 6. araua "Tarifen taula"**

Konpostatzen duten etxebizitzak eta abeltzaintzako ustiategiak	87,48 €
Konpostatzen ez duten etxebizitzak eta abeltzaintzako ustiategiak	105 €
Konpostatzen duten tabernak, ostalaritza eta jatetxeak	139,95 €
Konpostatzen ez duten tabernak, ostalaritza eta jatetxeak	157,46 €

Zalduondon, 2025eko abenduaren 18an

*Alkatea*

**LURDES LEKUONA LABURU**